

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 131/2020 Erabakia, martxoaren 3koa. Onespena ematea aplikatzeari Lezako udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari loturiko hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa partziala azaroaren 12ko 708/2019 Erabakiaren bidez onestearen ondorioz gehitutako hiru lurzoruaren balorazio irizpideak

Foru Gobernu Kontseiluarean azaroaren 12ko 708/2019 erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako Lezako udalerriko hiri lurzoruaren mugaketa, zeina arau subsidiarioetan egindako zenbait aldaketa direla eta eguneraketak egiteko gauzatu baitzen.

Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 25eko 831/2008 Erabakiak behin betiko onetsi zuen Lezako udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzoruaren eta hiri erai-kinen balioen txostena.

Horrenbestez, beharrezkoa da 708/2019 Erabakian jasotakoak direla eta eragindako lurzatiei aipatutako udalerrian indarrean dagoen balioen txostenean (831/2008 Erabakiak onetsia) jasotako irizpide berberak aplikatzea orain.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 25eko 831/2008 Erabakiaren bidez onetsitako Lezako udalerriko balioen txostenean jasotzen diren zerga zonak aplikatzea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 708/2019 Erabakiaren bidez Lezako udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari loturiko hiri lurzoruaren mugaketa onestearen ondorioz erantsitako hiri lurzoruari.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta Lezako Udalari dagokio haren berri ematea, kasuan kasuko ediktuak jarrita.

Hirugarrena. Erabaki honen ondorioz ematen diren egintzak interesdunei jakinaraziko zaizkie Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 22ko 1080/1992 Foru Dekretuak, hiri ondasunen katastro balioak berraztertzeko eta aldatzeko prozedura arautzen duenak, 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA